

ELEIZBARRUTIKO KURIAREN ESTATUTUA
BILBOKO ELEIZBARRUTIA

I. IZENBURUA

ELEIZBARRUTIKO KURIAREN

ARAU OROKOR ETA OINARRI

TEOLOGIKO ETA KANONIKO ERREGULATZAILEAK

1. ARTIKULUA

§ 1. Eleizbarruti osoaren zerbitzurako, batez be pastoral jardueraren, administrazioaren zuzendaritzan eta epai-agintearen garapenean, gotzainari laguntzen deuten erakunde eta pertsonak osatzen dabe Bilboko Eleizbarrutiko Kuria (469 k. Ik. *Pastor Bonus* Konstituzio apostolikoa, 1. art.).

§ 2. Gotzainak, Kuriako eskumeneko erakundeen bitartez, Eleizbarrutiko pastoral jardura zuzendu, bideratu eta suspertu egiten dau (ik. 469 k.). Horregaitik, Kuriako erakundeek behar daben laguntza emoten deute errealidade anitzei bikaritzei, pastoral barrutiei, parrokiei eta Eleizbarrutian errotutako erakundeei, alkarteei eta mobimentuei, lagun eginez eta, batez be, Eleizbarrutiko pastoralgintza orokorragaz bat, euren ardurapean itzitako pastoral egitekoa aurrera eroateko behar dabezan laguntzak emonez.

2. ARTIKULUA

§ 1. Bilboko Eleizbarrutiko Kuria bitarteko organikoa eta Eleizaren Zuzenbide positiboak Gotzainaren zerbitzura jarten dauan baliabidea da, beronen bitartez bere misino hirukotxa gauzatu daian: doktrinaren maisua, kultu sakratuaren abadea eta gobernurako ministroa (Ik. 375 k., § 1). Menpetasun-lotura dago Kuriako ofizioetan Eleizbarrutiko Gotzainagazko. Menpetasun hau, Kuriako ofizio pastoral eta administratiboen jardueran agertzen da batez be, beti izendatu behar dabezalako Gotzainaren asmoak alkartasunaren berme lez (ik. 480 k.).

§ 2. Ebanjelizazioaren aldeko zerbitzua da Eleizbarrutiko Kuriako erakunde guztien egitekoen arrazoia, pastoral egitekoena zein administratibo eta judizialarena, honeek be pastoral jarduerak dira-eta. Kodeak Eleizaren lege guztiei esleitzen deuten xedearen, hau da, *salus animarum* dalakoaren gauzatze praktikoa da, 1752 kodearen arabera. Horrek, Kuriaren egiteko guztien azken xedea pastoraltza dala dakar.

§ 3. Gotzainak benetako lankidetzak ardurakidera deitzen ditu Kurian jarduten dabenak, ebanjelizazioa eta Eleizbarrutiaren gobernu guztion eginkizun lez sentiarazoteko. Lankidetzak horrek ezinbestekoa dau Gotzainaren eta bere Kuriaren arteko hartu-emon naturala, anaitasunezkoa eta iraunkorra. Horretarako Estatutu

honen misinoa egon eta eskatu beharrekoak diran alkarren arteko hartu-emonerako arauzko bideak zabaltzea da.

§ 4. Kuria Eleizbarrutiaren gobernu egokiaren zerbitzura dagoan koordinaziorako tresna da. Bere helburua, pastoral eta gobernu jardueran batasuna eragitea da, Kuriako ofizio bakotzak bere egitekoetan kontuan izan daizan guztien helburuak eta honeen gauzatzea bilatu daian eraginkortasunez. Eleiz alkartasunak berak eskatzen dau hau, horren arabera, Kuriako kide guztiek Eleizbarrutian erreferentzia eta alkartasunaren eta batasunaren bermatzaile dan Eleizbarrutiko Gotzainaren erreferentziatzat izan behar dabe-eta beti. Koordinazioak, informazio, planifikazio, egitekoen banaketa eta garapenaren bidez eraginkortasunez suspertuko dauan aginpidea eskatzen dau. Koordinazioa, lehenengo eta behin, Eleizbarrutiko Gotzainari dagokio, eta bitarteko bi erabili daitez horretarako: Kuriako moderatzailea eta Gotzain Kontseilua (cfr. c. 473 § 1).

3. ARTIKULUA

§ 1. Eleizbarrutiko Kuria araudi kanoniko orokorraren eta Estatutu honen bitartez gobernatzen da.

§ 2. Gotzainak, Zuzenbidearen arabera, promulgatu daitez araudi, direktorio eta jarraibideak gehituko dira Estatutu honen ezarpen eta garapenerako, Kuriako erakundeetan orain arte indarrean izan diran araudiak jasoz eta eguneratuz (ik. 34 eta 95 kk.).

4. ARTIKULUA

§ 1. Eleizbarrutiko Gotzainari dagokio:

1. Eleizbarrutiko Kurian ofizioaren batean jardun behar daben personak izendatu, dalako kargu horreetan arituko diranak gotzainaren konfiantza izan behar dabelako, gertuko laguntzaileak ditu-eta beren-beregi gotzain ministerioari dagokiozan pastoral egitekoen garapenean. Horretarako, bereizketa egoki eta bidezkoa egingo dau, bidezko kontsultak egingo ditu eta dagokien persona eta erakundeei aholkua eskatuko deutse (ik. 470 k.). Gotzainari dagokio, Bikario Nagusia eta Gotzain Bikarioak izendatu aurretik, azteraldi zabala egitea eleizbarrutiko eremu guztietan.

2. Zuzenbidean existentzia aginduta daukien erakundeen arautze osagarria (ik. 381 § 1 k.).

3. Zuzenbide orokorrak ezarritako esparruaren barruan, Eleizbarrutiko Kuriak bere helburuak lortze aldera, beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen dituan beste erakunde batzuk sortu edo arautu edo kendu edo aldatu (ik. 391 k.).

§ 2. Dalako erakunde horren sorrera zein aldaketa edo kentzea eta Kuriako kide izango diran personen izendapena idatziz egingo da, agindu bidez (ik. 145 eta 156 kk.).

5. ARTIKULUA

Kurian edozein kargu garatzen dabenean, Gotzainak, Zuzenbidez, ohiko edo ezohiko bidez, esleitutako zerbitzua hobeto beteteko emon deiozan aginpideak izango dabez eurei dagokiezan eskumenen barruan.

6. ARTIKULUA

§ 1. Funtsezko eskakizunak dira kargu edo ofizioen bat garatuz Kuriako kide diranengan:

1. Eleizaren Fede, Tradizino, Irakaspen eta diziplinagazko alkartasun osoa.
2. Bere esku itzitako misinoagaz bat datorren bizimodua, irregulartasun edo eragozpen bakoa.
3. Agintzen jakona burutzeko egokitasuna.
4. Leialtasuna, eredugarritasuna eta sen apostolikoa bere eginbeharren betetean.
5. Sekretua gorde, Zuzenbideak edo Gotzainak ezarritako mugen edo moduaren arabera (ik. 149 eta 471 kk.).

§ 2. Kurian ofizioen bat beteteko onartutakoek jentaurrean zin egingo dabe euren egitekoak zintzo beteko dabezala, Zuzenbidean eta, dagokionean, Gotzainak ezarritakoaren arabera. Bikario Nagusiak, Gotzain Bikarioek, Auzi Bikarioak eta, dagokionean, Auzi Bikario laguntzaileak, gainera, euren fede autortza eta leialtasun zina egingo dabe (ik. 471, 1. eta 833, 5. kk.).

§ 3. Kuriako sail desbardineta zerbitzuetarako fededun laikoak, gizon zein emakumeak, izendatu daitezke, Eleizan bakotxak dauan bokazino eta misinoagaz bat eta Zuzenbidearen arau orokorren arabera. Euren ofizio eta egitekoen arautze zehatza, Konkordatu-zuzenbidean zein ezarri dakikien Zuzenbide Zibilean aurreikusitakoaren arabera izango da.

7. ARTIKULUA

§ 1. Kuriako eleiz ofizioa galdu egiten da aurrez jarritako denporea igarotzeagaitik; Zuzenbidez ezarritako adin jakin bat beteteagaitik; Gotzainak onartutako uko egiteagaitik; Zuzenbidearen arau orokorren arabera egindako lekualdatze edo kargu-

gabeteagaitik; eta, Zuzenbidearen arau orokorren arabera ezarri dakikien ofizio guztietarako, Gotzain Aulkia bertan behera edo hutsik geratzeagaitik.

§ 2. Aurrez jarritako denporea igarotzeagaitik edo adina beteteagaitik ofizioa galtzea Gotzainak idatziz jakinarazoten dauan unetik aurrera dau eragina.

§ 3. Eleiz ofizio baten titulartasunetik kanpo, Kuriari kontratu bidez lotuta dagozan personen jardueraren amaiera gertatzen danean, dagokiezan lan-kontratuetan jasoten diran baldintzak zein indarrean dagoan Lan-zuzenbidetik ezarri daitekezan arauak aintzat hartu beharko dira.

8. ARTIKULUA

§ 1. Ondorengo sail eta erakundeek osatzen dabe Bilboko Eleizbarrutiko Kuria:

1. Eleizbarrutiaren gobernu orokorrerako sailak:

- a) Bikario Nagusi bat edo gehiago, Eleizbarrutiko Gotzainaren eretxiaren arabera.
- b) Gotzain Bikarioak.
- c) Gotzain Kontseilua.

2. Beren-beregi Kuriakoak diran egitekoen garapenerako erakundeak:

- a) Eleizbarrutiko Ordezkaritzak, Idazkaritzak eta Sailak.
- b) Kantzelaritza eta Notaritza.
- c) Idazkaritza Nagusia.
- d) Eleizbarrutiko Administrazioa.
- e) Eleiz Auzitegia.
- f) Beste erakunde batzuk: Aholkularitza Juridikoa, Artxiboetarako Eleizbarrutiko Zerbitzua eta Gotzainaren Idazkaritza Partikularra.

§ 2. Ikuspuntu funtzionaletik, eta Eleizbarrutiko Kuria osoa gertutasunez ala berehalakotasunez Eleizaren misinoaren zerbitzura dagoala kontuan hartuta, Bilboko Eleizbarrutiko Kuriako erakundeak honan egituratzen dira:

1. Kuria Pastoral: Eleizan fede-zabalkundea, ospakizuna, karidatea eta alkartasuna garatzeko misinoa daben erakundeek osatzen dabe.
2. Kuria Administratiboa: Eleizaren misinoaren garapenerako ezinbestekoak diran ekonomia-administrazio erako zerbitzuak eskaintzen dabezan erakundeak dagoz bertan.
3. Justiziarako Kuria edo Eleiz Auzitegia: laguntza emoten deutso Eleizbarrutiko Gotzainari bere epai-agintearen garapenean.

§ 3. Eleizaren legeria aintzat hartuta, Kuriak Zuzenbide Kanonikoko Kodearen arabera ezarritako eta araututako zuzenbide unibersaleko erakunde eta ofizioak eta Bilboko

Eleizbarrutiaren zuzenbide partikularreko erakunde eta ofizioak ditu, ondorengo sailkapenaren arabera:

1. Eleizaren zuzenbide unibersaleko erakunde eta ofizioak dira:
 - a. Bikario Nagusiak.
 - b. Gotzain Bikarioak.
 - c. Gotzain Kontseilua.
 - d. Kuriako Moderatzailea.
 - e. Kantzelaria eta Notarioak.
 - f. Eleizbarrutiko Artxiboa.
 - g. Ekonomia Gaietarako Batzordea.
 - h. Eleizbarrutiko Ekonomia.
 - i. Auzi Bikarioa eta, dagokionean, Auzi Bikario laguntzaileak.
 - j. Eleiz Auzitegia.
 - k. Eleizbarrutiko Epailleak, Zuzentasun-sustatzailea, Auditorea, Loturaren Defendatzailea eta Auzi Notarioa.
2. Bilboko Eleizbarrutiaren zuzenbide partikularreko erakunde eta ofizioak dira:
 - a. Ordezkaritzak, Idazkaritzak, Sailak, Idazkaritza Nagusia, Aholkularitza Juridikoa, Artxiboetarako Eleizbarrutiko Zerbitzua eta Gotzainaren Idazkaritza pertsonala.
 - b. Ordezkariek, Zuzendariak, Idazkari Nagusia, Artxiboetarako Eleizbarrutiko Zerbitzuko Arduraduna eta Gotzainaren Idazkari pertsonala.

9. ARTIKULUA

Horrezaz gainera, Gotzainaren laguntzaile dira Eleizbarrutiaren gorberruan, ardurakidetasun eta kontsultarako erakunde kolegiatu lez, Abade Kontseilua, Kontsultoreen Kolegioa, Eleizbarrutiko Pastoral Kontseilua eta Katedraleko Kapituluak, bakoitza bere Estatutuen arabera, nahiz eta, berez, Eleizbarrutiko Kuriaren barruan ez egon (ik. 502; 495-501; 511-514 kk.). Eleizbarrutiko Gotzainak ontzat emonda, bakoitza bere Estatutuen arabera gobernatuko da.

II. IZENBURUA

BIKARIO NAGUSIA

ETA KURIAKO MODERATZAILEA

10. ARTIKULUA

§ 1. Gotzainaren atzetik, Bikario Nagusiari dagokio lehenengo maila Kuriako hierarkia administratiboan, bere mendea geratzen diralarik eleizbarrutiko administrazioa osatzen daben ofizio guztiak.

§ 2. Eleizbarrutiko Gotzainak beregain izendatzen dau Bikario Nagusia eta berak mobitu be beregain.

§ 3. Bikario Nagusia ez dagoanean edo bidezko ezintasunen bat dauanean, Eleizbarrutiko Gotzainak haren egitekoak bere gain hartuko dituan beste bat izendatu daike; arau bera ezartzen jako Gotzain bikarioari.

§ 4. Bikario Nagusiak konpontzeko ala konponduta dagozan gai garrantzitsuenen barri emon behar deutso Gotzainari eta sekula ez dau Eleizbarrutiko Gotzainaren borondate eta asmoen aurka jokatu (ik. 480 k.).

11. ARTIKULUA

§ 1. Bikario Nagusiak ahalmen betearazlea edo administratiboa dau, ohikoa edo ofizioari erantsia, ordezkoa edo jaubetua eta Gotzainaren izenean gauzatu daitekena, eta horrexegaitik orokorra Eleizbarruti osorako eta Gotzainaren mendekoa. Lekuko Ordinarioa da. Beraz, edozein ekintza administratibo egitea dagokio, Gotzainak beretzat gorde dituanak edo aparteko agindua eskatzen dabenak izan ezik (ik. 134; 475 eta 479 kk.).

Vatikanoak Gotzainaren esku itzitako ohiko ahalmenak be badagokioz eta hango erantzunak gauzatzea, beren-beregi beste zerbait ezartzen ez bada edo Eleizbarrutiko Gotzainaren ezaugarri pertsonalak kontuan hartuko balitzaz (ik. 65 k.).

§ 2. Gotzainak, bere ofizioari dagokiozan ohiko egitekoez gainera, berariazko gairen bati buruzko ahalmen zuzen, berehalako eta eskusiboa esleitu deikeo Bikario Nagusiari, dalako gai hori Kuriako beste edozein erakunde edo personaren eskumen-eremutik kanpo geratuko dalarik.

§ 3. Bikario Nagusiak ukatutako grazia ezin dau beste Bikario batek, Nagusi zein Gotzain Bikario, baliotasunez emon. Ez da baliozkoa be Gotzainak emotea, alde aurretik Bikario Nagusiak ukatu egin dauala jakinarazoten ez bajako. Ez da baliozkoa Gotzainak ukatutako grazia Bikario Nagusiak emotea, Gotzainak beren-beregi

onartzen ez badau behintzat. Ez da baliozkoa, ezta be, beste Bikario batek ukatutako grazia Bikario Nagusiak emotea, aldez aurretik dalako Bikario horrek ukatu egin dauala jakinarazoten ez bajako eta aldez aurretik beste Bikario horri eretxia eskatzen ez badeutso (ik. 477 § 2 k.).

§ 4. Karguari uko egiteko erabagia zilegitasunez aurkeztu eta dagokionak onartu izanagaitik, agindutako eta eskatutako gabetzeagaitik eta Gotzain Aulkia bertan behera edo hutsik geratzeagaitik izten dau ofizioa (ik. 481 eta 409 kk.).

12. ARTIKULUA

§ 1. Eleizbarrutiko Gotzainak Kuriako Moderatzailea izendatu daike (ik. 473 § 2 k.).

§ 2. Gotzainaren eretxiz inguruabarrek beste zerbait eskatu ezean, Bikario Nagusia izendatuko dau Kuriako Moderatzaile ofiziorako, edo bat baino gehiago badira, Bikario Nagusietako bat. (ik. 473, § 3 k.).

§ 3. Bikario Nagusi bat baino gehiago egon ezkeru, Gotzainak Moderatzaileak ez izendatzea eragabi daike eta Kurian egiten diran lanak euren artean banatzea, bakotxak bere aginpidez koordinatu daizan. Kasu honetan, Bikario Nagusi bakotxak bere gain hartuko ditu, batez be esleitu jakozan Kuriako sailetan, Moderatzaileari dagokiozan eginkizunak, hain zuzen ondoren aitutzen diranak.

§ 4. Kuriako Moderatzaileari beren-beregi dagokion misinoa:

1. Kuriako jarduerak suspertu, koordinatu eta zuzendu, Gotzainaren aginduak jarraituz.

2. Kuriako behargin guztiek euren betebeharra egokitasunez bete daiela zaindu (ik. 473 § 2 k.).

§ 3. Eginkizun honeek beteteko:

1. Eleizbarrutiko Gotzain Bikarioei, Ordezkariei eta Zuzendariei egokitzat jotako informazioa eskatu deikie eta beharrezkotzat jotzen dauanaz hornitu daikez, euren lanen koordinazino hobeari begira.

2. Aldian behingo komunikazino ezarriko dau Kuriako erakunde bakotxeko arduradunakaz eta egokitzat jotzen dauan Kuriako beste edozeinegaz, egitekoen ikuskapen eta koordinazino egokirako.

3. Batzarrak deitu ahal izango ditu Kuriako ofizio guztiakaz, euren jarduera, erabagi eta egitasmoen inguruan gehiago jakiteko, osatzen daben zerbitzu guztien koordinazino eta kudeaketa hobea bermatu ahal izateko.

4. Kotsultarako batzordeak eratu ahal izango ditu, bidezkotzat jotzen dauanean.

5. Ofizioen arteko eskumen esleipena mugatuko dau, gai berarentzat eskumen konpartitua dagoanean.
6. Kuriaren jarduera eraginkor eta bizkorrago egingo daben dekretu, antolamendu, araudi eta direktorioen proposamenak aurkeztuko deutzaz Gotzainari, bidezko txostenak eskatu ostean.
7. Kuriaren zerbitzurako personen kontratatze-prozesuetan esku-hartuko dau eta dalako kontratazino horreek beragaz bat etorriz egingo dira.
8. Eskumena dau, Kantzelariagaz batera, Eleizbarrutiko Artxiboan sartzeko eta bertatik agiriak sartzeko (ik. 487 § 1 eta 488 kk.).
9. Kantzelariak eta Idazkari Nagusiak eragin juridikoak eragin daikiezan Kuriaren jardueren barri emongo deutse (ik. 474 k.), bere kargu itzitako eginkizun koordinatzaileari lagundu ahal izateko.

III. IZENBURUA

GOTZAIN BIKARIOAK

13. ARTIKULUA

Eleizbarrutiko Gotzainak beregain izendatzen ditu Gotzain Bikarioak, euren izendapen-ekitaldian erabagitzen dan denporaldirako, eta Gotzainak berak beregain lekuz aldatzen ditu (ik. 475-478 kk.).

14. ARTIKULUA

Eleizbarrutiaren gobernu egokirako beharrezkoa dana aintzat hartuta, Gotzainak Eleizbarrutiko lurralde jakin baterako izendatu daikez Gotzain Bikarioak (lurralde agintea), edo gai jakin batzuetarako (aginte berezia), edo personen talde jakin baterako (aginte pertsonala) (ik. 476 k.).

15. ARTIKULUA

§ 1. Gotzain Bikarioek Bikario Nagusiari Zuzenbide unibersalez dagokion aginte bera dau, baina esleitutako lurraldera, gaietara edo personen talde jakin batera mugatuta, Gotzainak, Izendapen-aginduan, dalako eskumen horreek eginkizunei edo lurraldeari dagokionez zabaltzen ez baditu behintzat (ik. 476 eta 479 kk., 131, § 1 eta 2; 134 kapituluaren aitamenagaz).

§ 2. Gotzain Bikarioei 11 § 2 kapituluan jasotakoa ezartzen jake.

§ 3. Karguari uko egiteko erabagia zilegitasunez aurkeztu eta onartu izanagaitik, Gotzainak jakinarazota lekuz aldatu izanagatik eta Gotzain Aulkia bertan behera edo hutsik geratzeagaitik izten dau ofizioa (ik. 481; 189; 192-195 kk.).

16. ARTIKULUA

Gotzain Bikarioei, bakotxari bere lurraldearen barruan, euren Bikaritzza osatzen dabenei edo euren ardurapean itzitako gaiei dagokienez, ondorengo egitekoak dagokiez, besteak beste:

1. Pastoralgintza bultzatu, koordinatu eta zuzendu, Gotzainak eta bere Gotzain Kontseiluak jarritako jokabideak aintzat hartuz.
2. Euren inguruko edo pastoral eremuko pastoral beharizanei buruzko informazio egokia batu eta ordenatu eta Gotzain Kontseilura eroan, Gotzainaren bidezko arreta eta erabakitasunerako.
3. Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko Egitasmoa prestatzen eta euren Bikaritzetan garatzen eta ezartzen lagundu.
4. Alkarrizketa eta lankidetzak ahalbideratu eta suspertu pastoral eragileakaz.
5. Abadeei, diakonoei, eta biziera sagaratuko institutuetakoa, institutu sekularretako eta biziera apostolikoko alkarteetako kideei arreta eskaini, bisita egin eta eurakaz hartu-emon estuan egon, euren bizitza eta jarduera apostolikoan adre emonez.

17. ARTIKULUA

Kuriako erakunde orokor batek ez dau gotzain Bikaritzetan eragina dauan auzirik konponduko, dagokion Bikarioaren eretxia aintzat hartu barik.

IV. IZENBURUA

GOTZAIN KONTSEILUA

18. ARTIKULUA

§ 1. Eskumeneko eraketa daben erakundeen sailekoa dan Gotzain Kontseilua (ik. 473 § 4 k.), alkartasun eta ardurakidetasunezko erakunde lez eratzen da Bilboko Eleizbarrutian eta beronen bitartez Gotzainak Bikario nagusi eta gotzain Bikarioen pastoral jarduera koordinatu egiten dau, dagokion egitekoa betez.

§ 2. Eleizbarrutiaren gobernuan batasuna ziurtatzea da Kontseiluaren helburu nagusia. Eginkizun hori, Gotzainari aholku emonez, kideek alkarri informazioa emonez eta jarduerarako erispideak ezarriz garatzen dau.

§ 3. Gotzain Kontseiluak Eleizbarrutiaren gobernuan laguntzen deutso Gotzainari, informazioa eta aholkua emonez, persona eta gauzei dagokiezan balizko erabagiak prestatuz eta Gotzainak hartutako erabagiaren gauzatzean lagunduz.

19. ARTIKULUA

§ 1. Gotzaina buru dala, bertako kide izango dira Bikario Nagusia eta Gotzain Bikarioak.

§ 2. Landuko diran gaiak hala eskatuta, Gotzain Kontseiluaren saioetan konbidatu lez parte hartuko dabe, Idazkari Nagusiak, Kantzelariak, Eleizbarrutiko Ordezkariek edo Idazkaritza eta Zerbitzuetako Zuzendariak, Eleizbarrutiko Kuriako ofizio desbardinatiko titularrek edo Eleizbarrutiko beste erakunde batzuetako arduradunek.

§ 3. Gotzain Kontseilua ez da Gotzaina kanpoan danean edo ezinduta dagoanean batzartuko, atzeratu ezin daitekezan gaiak landu behar diranean eta Gotzainak bere baimena emoten dauanean izan ezik. Holakoetan, Gotzainak Bikario Nagusiaren esku itziko dau buru izatea.

20. ARTIKULUA

Honeek dira, besteak beste, Gotzain Kontseiluaren eginkizun eta eskumenak:

1. Gotzainaren eta Eleizbarrutiko Kuriaren gobernu-jarduerari laguntzen deutso, informazioaren, aholkularitzaren eta jarduera edo erabagi juridiko eta pastoralen prestaketaren bidez.

2. Gotzainari Eleizbarrutiko pastoral jarduerarako proposamen operatiboen inguruan kontsulta egiteko, alkarrizketan jarduteko eta aurkezteko eremua da.
3. Bikario bakotzak konpondu beharreko edo konpondutako gaien barri emon behar deutso Gotzainari eta ez dau Eleizbarrutiko Gotzainaren borondate eta asmoen aurka jokatu behar.
4. Bitarteko egonkorra da kontsultak eta informazioak errazteko Gotzainari eta Kontseiluko kide diran Eleizbarrutiko gainerako ordinarioei.
5. Gobernu-jardueran egon daitekezan bat ez etorteei aurre egiten deutse eta jarduera eta erispide batasuna ahalbideratzen dau gairik garrantzitsuenetan.
6. Eleizako izendapenak prestatzen ditu.
7. Argibideak emoten ditu Eleizbarrutirako aparteko garrantzia daben auzi jakin batzuk jorratzeko.
8. Aholku emoten deutso Gotzainari abadeen bizitzari, eskubideei, betebeharrei, diziplinari, banaketari eta eten bako hezikerari buruz.
9. Eleizbarrutiko gainerako kontseilu, kolegio edo erakundeen jardueraren suspertzaile lanak egiten ditu, bakotxaren autonomia eta erantzukizuna suspertuz eta errespetatuz.
10. Gotzain Kontseiluak gobernu-erabagiak hartu daikez, nahiz eta normalean erabagi horrek kanpoan eraginkortasun juridikorik ez izan, Gotzainaren edo Kontseiluko kide diran lekuko Ordinarioen baten ahalmenez egindako ekintza lez legezko egiten ez dan bitartean.
11. Bikario bakotzak, Gotzain Kontseiluaren batzarretan landutakoaz gainera, berari dagokiozan gaien barri Gotzainari zuzenean emoteko eskubidea dau.
12. Gotzainak proposamen batzuen aurrean beto-eskubidea erabili ahal izango dau, gai batzuk eztabaidatik kanpo itzi ahal izango ditu edo kontu jakin batzuen azterketa eta tratamentua beretzat gorde.

21. ARTIKULUA

§ 1. Gotzain Kontseilua normalean astero batzartuko da eta Gotzaina buru dala; Gotzainak, bera kanpoan izanda, Kontseiluak batzarra egin behar dauala erabagitzen dauanean, Bikario Nagusiaren esku itziko dau buru izatea.

§ 2. Normalean, Gotzain Kontseiluak aho batez hartuko ditu erabagiak; Gotzainak bozketa eskatu daike eretxia formaltasunez emoteko, gai garrantzitsuagoak diranean edo aho bateko akordiorik ez dagoanean.

§ 3. Bikario Nagusiak prestatuko dau, Gotzainagaz bat, batzarretarako gai zerrenda.

§ 4. Gaiak hala eskatu ezker, Gotzainaren eretziz, Kontseiluak "txosten" bidez landuko ditu gaiak, lagun bati edo gehiagori gauzak sakonago aztertzen lagunduko dauan txostena egiteko eskatuz: aurretiko ze konponbide dagoan, zein ezarri kasuari, ze arrazoi alde ala kontra.

§ 5. Gotzain Kontseiluaren deliberamenduak sekretuak dira, beren-beregi kontrakoa agertzen dan gaietan izan ezik.

§ 6. Kontseiluak erabagiko dau bere saioetako batzar-agiria jasoteko erarik egokiena zein dan. Gotzainak onartuko ditu batzar-agiriak eta Kantzelariari dagokio gordetea.

V. IZENBURUA

ELEIZBARRUTIKO ORDEZKARITZAK,

IDAZKARITZAK ETA SAILAK

1. KAPITULUA. JATORRIA ETA EGITEKOAK

22. ARTIKULUA

§1. Eleizbarrutiko Ordezkaritzak pastorgintzarako erakundeak dira; Gotzainaren agintepean eta zuzendaritzapean, Gotzainaren ministerio jardueraren era bateko eta besteko eremuen animazinoa, susperketa eta koordinaziona ziurtatzen dabe Eleizbarruti osoan. Beraz, Gotzaina da Eleizbarrutiko pastoraltzaren antolaketa eta sustapenaren arduradun nagusia arlo guztietan.

§ 2. Era berean, Ordezkaritzak parrokiei, komunitadeei, pastoral barrutiei, bikaritzei, mobimentuei, alkarteei eta eleizbarrutiko beste erakunde batzuei, bakotxari agindutako pastoral egitekoa garatze aldera, laguntasuna, akonpainamentua eta sustapena eskaintzen deutesiezan erakunde bilakatzen dira.

§ 3. Ordezkarri bakotxean, Gotzainak Gotzain Kontseiluaren proposamenez izendatutako Ordezkarria izango da buru.

§ 4. Ordezkaritza bakotxaren barruan sektore espezializatuagoen pastoral sustapenaz arduratzeko, Batzordeak eratu daitezke eta honeek dagokien Ordezkariaz bat jardun beharko dabe. Batzorde bakotxean, Arduraduna izango da buru,

Ordezkaritzaren ikuskapenez zuzenduko ditu lanak eta Ordezkaritari Batzordearen jardueren barri emongo deitso. Eleizbarrutiko Ordezkaririk proposatu eta Gotzainak berretsiko dau.

§ 5. Idazkaritzak be sortuko dira, biziera bateko edo besteko, hau da, laiko, abade, diakono edo klausurako erlijioso bizierako, pertonez arduratzeko. Gotzain Kontseiluak proposatuta, Gotzainak Zuzendaria izendatuko dau horreetako batean buru izan daiten.

§ 6. Sailen eginkizuna, teknikoa da, Eleizaren pastoral misinoaren zerbitzura dagoan egitekoa. Sailetan buru izateko, Gotzainak Zuzendariak izendatuko ditu, Gotzain Kontseiluak proposatuta.

§ 7. Ordezkaritzen, Idazkaritzen eta Sailen eduki, egitura eta jardunbidea erakunde horreetako bakoxtaren berariazko Araudian zehaztuko dira edo, dagokionean, Gotzainak emondako bakarkako dekretuz.

23. ARTIKULUA

Ordezkaririk eta Zuzendariak borondate eta asmoetan Gotzainagaz bat eginda jardungo dabe beti.

24. ARTIKULUA

§ 1. Bikario Nagusiarik dagokio Eleizbarrutiko Ordezkaritzen, Idazkaritzen eta Sailen gertuko ikuskapen eta koordinazioa egitea. Bat baino gehiago badira, ondoren agintzen dana lehentasunez izendatutako Bikario Nagusiarik dagokio.

§ 2. Bidezko aurrerapenagaz, Ordezkaririk eta Zuzendari bakoxtak pastoral ekiturterako helburu eta jardueren egitaraua aurkeztuko deitso Bikario Nagusiarik, horreek burutzeko ezinbesteko bitartekoak eta epeak, euren kostu eta finantzaketa zehaztuz, Eleizbarrutiko aurrekontu orokorrean kontuan hartzeko.

§ 3. Bikario Nagusiarik dagokio, egindako proposamenak ikusita, Gotzainaririk aurkeztea onartu daizan ala, bidezkoa danean, programazino barria eskatzea, helburuen errepikapena edo euren arteko desadostasuna saihestuz.

§ 4. Era berean, Bikario Nagusiarik dagokio Ordezkaritza bakoxtaren programazinoak euron zabalkundeetan zein eurok garatzeko ezinbesteko bitarteko ekonomikoetan eragina daben eleizbarrutiko erakundeei helarazotea.

§ 5. Gotzain Bikarioek, Ordezkaririk eta Zuzendariak hartu-emon egonkor eta ohikoa izango dabe, pastoralgintzan ahalik eta koordinazinoarik onena eta Kuriako erakundeetan eta lurraldeetako pastoral jardueraren arteko hartu-emona bermatzeko.

§ 6. Behar dan guztietan, Ordezkaririk eta Zuzendariak dei egingo jake, Gotzain Kontseiluan dagokien pastoral arloko egoeraren, lehentasunezko jarraibideetan eta

garatzeko asmoa daben jardueren barri emon daien. Era berean, Eleizbarrutiko pastoraltzan bultzatzeko komenigarritzat joten diran argibide eta jarduerak jasoko dabez Gotzain Kontseilutik. Egokitzen jotzen dabenean, Gotzain Kontseilura barri emotera edo kontsulta egitera joatea eskatu ahal izango dabe.

25. ARTIKULUA

Hona hemen Eleizbarrutiko Ordezkaritzen, Idazkaritzen eta Sailen eginkizunak:

1. Euren jardunlekuko egoera ondo ezagutu: arazoak, beharrianak, preminak, aukerak,...
2. Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko Egitasmoaren prestaketan parte hartu.
3. Lana programatu, Eleizbarrutiko Gotzainaren eta Gotzain Kontseiluaren zuzendaritzapean, Ebanjelizatzearen Eleizbarrutiko Egitasmoagaz bat eta parrokien, pastoral barrutien, komunitateen eta gainerako errealidadeen egoera eta beharrianak zuzenetik ezagutuz eta jarraituz, programazinetik eratorritako jarduerak garatzeko eta lan-egitasmoaren ebaluazioa egiteko.
4. Dagokion ebanjelizatze-eremuaren jarduerak koordinatu eta suspertu, Eleizbarrutiko maila guztietan eta lurralde osoan, batez be, parrokia eta pastoral barrutiakaz gertuko eta zerbitzuzko hartu-emonia izanda.
5. Euren eskualdean jarduera ebanjelizatzaileen ardura dabenen osoko prestakuntza bultzatu, kasu bakotxerako bitarteko egokiak ipiniz. Normalean, Eleizbarrutian heziketarako diran erakundeakaz alkarlanean jardungo da.
6. Euren eskumeneko arloaren inguruan Gotzainak edo eleizbarrutiko beste erakunde batzuek aurkeztutako auzietarako aholkulari lez jardun.
7. Eleizbarrutiko alkartean, ebanjelizatzeari dagokionez antzematen diran beharrianen inguruan sentiberatasuna biztu.
8. Euren ekintza, euren pastoral eremuko mobimentu eta alkarteakaz zein gainerako Ordezkaritzakaz koordinatu.
9. Eleizbarrutian dagozan edo eleizbarruti artekoak diran beste erakunde batzukaz hartu-emonia izan.
10. Dagokionean, Ordezkariek eta Zuzendariak aholku emon behar deute Gotzainari eurengan eragina daben erakunde publikoakaz ezarritako akordioen bidez araututako karguen izendapenean, eta hartu-emonean izan behar dabe dagokien erakunde zibilakaz.

2. KAPITULUA. ORDEZKARITZEN, IDAZKARITZEN ETA SAILEN EGITURAKETA

26. ARTIKULUA

§ 1. **LITURGIARAKO ELEIZBARRUTIKO ORDEZKARITZAREN** helburua, Vatikanoko II. Kontzilioaren arabera (SC 45), Gotzainaren agintepean jarduera liturgikoa suspertzea da, fedearen ospakizun egokia bultzatuz, honen bitartez Kristoren jarduera salbatzailea gaurkotu ahal izateko.

§ 2. Liturgiako Eleizbarrutiko Ordezkaritzaren oinarrizko egitekoa da Eleizbarrutiko bizitza liturgikoa zuzentzea, suspertzea eta jagotea, fededunen partaidetza zentzundun, errukior eta gogotsua eraginez Eleizaren diziplina liturgikoagaz bat. Horrek, batez be, zera dakar:

1. Gotzainaren ministerioan lagundu, liturgian hezteko eta gehiago jakiteko eta liturgiak gordeten dituan aberastasun guztiak ezagutzeko.
2. Gotzainari eleizbarrutiko bizitza liturgikoa bultzatzeko eta suspertzeko bideak proposatu.
3. Beharrezko lagungarriak prestatu eta eskaini, abade, diakono, lekaide, lekaime eta laikoen laguntasunerako.
4. Aldian behin egindako ekintzak aztertu, ebaluazinoa egin eta hobetzeko.
5. Gotzainak Pastoral Liturgikoan emoten dituan burubideak ezagutzera emon eta zabaldu.
6. Gaikuntza, gaurkotzea eta heziketa jagon, hausnarketarako topaketak eta gai liturgikoei buruzko ikastaroak antolatuz fededunentzat, alkartearen bizitza liturgikoan laguntzeko gauza izan daitezcan.
7. Eleizbarrutiak apostolutza liturgikoa suspertzeko sortu daitezcan ekimenak babestu eta bultzatu (ik. I OE 47).
8. Parrokietan batzordeak eratzea bultzatu eta adoretu, euren alkarteen eta alkarte liturgiaren suspertzaile izan daitezcan.
9. Jaunaren Eguna ospatzeko lagungarriak prestatu. Zerbitzu hori koordinatu eta prestakuntza eta akonpainamentua eskaini horretaz arduratzen diranei, Pastoral Barrutiagaz eta dagokion Gotzain Bikarioagaz koordinatuta jardunez.

§ 3. Liturgiako Eleizbarrutiko Ordezkaritzak aholku emongo deutse Lurraldeetako Gotzain Bikarioei euren Bikaritzetan liturgiako egitasmo eta egitarau pastoralak prestatu ahal izateko.

27. ARTIKULUA

§ 1. **FEDE-ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ELEIZBARRUTIKO ORDEZKARITZAK**, pastoral Kuriako erakunde lez, eraginkortasunez laguntzen dau Gotzainaren pastoral konpromisoan eta bere ardurapean, bere Gotzain Kontseiluagaz batera, Ebanjelioaganako, Eleizaren Tradizino eta Irakaspenenenganako leialtasunetik, Eleizbarrutiaren jarraibide eta egitasmoak kontuan hartuz, gainerako pastoral erakundeakazko koordinaziotik, bere proposamenak baloratuz eta euren gizarte errealidadean txertatuta dagozan eta bere jardueraren hartzaile diran personenganako gertutasunetik.

§ 2. Zerbitzu hurbil eta baliagarria eskaintzen deutso Eleizbarruti osoari eta batez be pastoral eremuiei, lurraldetako zein funtzionalei, honeek lortze aldera:

1. Barri Ona iragarri honen barri ez daukenei.
2. Fede sarbidea eskaini iragarpena onartu eta bila diharduenei.
3. Pastoral laguntasuna emon euren bizitzan sinistedunei.

§ 3. Pastoral eremu desbardinetan laguntzen dau, eleiz misino bakarrean, hau da, ebanjelizazioan, hainbat alderditan hedatuta:

1. Barri Onaren iragarpena.
2. Kristau sarbidea eta katekumenotza.
3. Fede hezkuntza eta heldutasuna adin, eremu eta bizitzako egoera desbardinetan.
4. Sinistedun lekukotasuna.
5. Bokazino laguntasuna.
6. Kristau alkartearen eraketa.

§ 4. Honako honeen bitartez gauzatzen dau bere zerbitzu eta jarduera:

1. Argibide eta hausnarketen, prozesu eta ekintzen, bitarteko eta lagungarrien, laguntasun eta aholkularitzaren eskaintza.
2. Eskarien, ekimenen eta proposamenen harrera.
3. Lurraldeetako koordinaziorako eremuen ezagutza.
4. Eleizbarrutiko gainerako erakundeakazko koordinazioa.
5. Hartu-emona, beste eleizbarruti batzuetako eta Gotzainen Batzarreko antzeko zerbitzuakaz.

28. ARTIKULUA

§ 1. **KARIDADE ETA ZUZENTASUNERAKO ELEIZBARRUTIKO ORDEZKARITZA**, Ebanjelioa eta Eleizaren Doktrina Soziala iturri dituala, Gotzainaren eta bere Gotzain Kontseiluaren eta bikaritzen, pastoral barrutien, parrokien, mobimentuen, komundadeen, alkarteen eta kristau herriaren zerbitzura dago, honetarako:

1. Gizartearen oinarri izan behar dauan giza duintasunari lotutako gaietan gizarte kontzientzia handiagoa eragin.
2. Ebanjelioaren ikuspuntutik, zuzentasuna eta partaidetza nabarmentzen dituan gizartearen lortzeko aldaketan lagundu.
3. Jaungoikoak batez be gizabanako eta gizatalderik ahulenen alde dauan maitasuna agertzera eongo dauan Eleiza, hau da, gertu eta haragituta dagoan Eleiza suspertu.

§ 2. Horretarako,

1. Bidegabekeria jasateko arriskuan dagozan gizabanako eta gizataldeak kristau alkarteko partaide izatea bultzatzen dau.
2. Heziketa eta Eleizaren Doktrina Sozialaren zabalkundea suspertzen dau.
3. Eleizbarrutiko pastoraltza laguntzen eta koordinatzen dau gizarte-karidade arloan.
4. Ondasunen kristau banaketa eta behartsuen aldeko alkartasuna eragiten dau.
5. Bakean bizikide izateko balioak bultzatzen ditu.
6. Salaketa profetikoa egiten dau Ebanjeliotik.
7. Alkarlanean jarduten dau beste erakunde eta talde batzukaz, giza duintasunaren sustapenaren alde.
8. Pobretasunez eta bazterketaz bustitako balizko errealidade barrietan arreta jarten dau, gizarte eta eleiz egoera kontuan hartuta, eta berariazko pastoral arretarako eremu barriak zabaltzeko aukera baloratzen dau.

§ 3. Ordezkaritzak arlo honetan esku-hartzen dabeneleiz erakundeakaz, batez be bertan parte diran Caritas eta Misinoak erakundeakaz, koordinatuta garatzen dau bere misinoa

29. ARTIKULUA

§ 1. **MISINOETARAKO ELEIZBARRUTIKO ORDEZKARITZARI**, Gotzainari eta bere Gotzain Kontseiluari Eleizbarrutiko misiolari sustapenean laguntzea dagokio.

§ 2. Misiolari sustapenak zera eskatzen dau:

1. Eleizbarrutiko fededunen artean misiolari sen unibersala bultzatu, bideratu eta zabaltu, kristau alderdi hau bihotz-zabaltasunez garatzeko ezinbesteko eragile eta bitartekoakaz, eleizbarrutiko pastorgintza orokorrean txertatuz.
2. Misiolari bokazinoak sortu abadeen, diakonoen, biziera sagaratukoaren eta laikoen artean.
3. Misiolari sustapen orokorra programatu.

4. Eleizbarrutiko parroketan, pastoral barrutietan eta bikaritzetan misiolari taldeak sortu, Misinoari eta Hirugarren Munduari buruzko ikastaroak eskainiz, prestaketarako eta informazioa emoteko.
5. Misiolari sustapen orokorra Eleizbarrutiko Kuriako gainerako erakundeakaz batera koordinatu.
6. Aita Santuaren ardurapeko Egintzak (OMP eta DOMUND) bultzatu Eleizbarrutian.

§ 3. Eleizen arteko lankidetzaren arloko lana honetan datza:

1. Aita Santuaren ardurapeko Egintzei lotutako jarduera eta kanpainak bultzatu: DOMUND, Ume Misiolariak eta Sorterriko Bokazinoak.
2. Beste Eleiza batzuen zerbitzura dagozan misiolariari aparteko arreta eskaini OCSHA, OCASHA, IEME edo *Fidei Donum* erakundeen bitartez.
3. Koordinazio egokia Donostia eta Gasteizko Eleizbarruti ahiztakaz Eleizbarrutietako Misinoen arretan.

30. ARTIKULUA

§ 1. **EKUMENISMO ETA ERLEJINOEN ARTEKO HARTU-EMONERAKO ORDEZKARITZAREN** egiteko nagusia, Eleizbarrutian sen ekumenikoa hedatzea da, hau da, katolikuen artean mobimentu ekumenikoa suspertu eta zuzendu. Kristau guztiak batasunean txertatzea da mobimentu horren helburua eta Eleizari, Kristoren borondatez, dalako batasun hori suspertzea dagokio.

§2. Eleizbarrutian dagozan erlejino ez kristauakazko hartu-emonen lantzea be Ordezkaritza honen egitekoa izango da.

31. ARTIKULUA

MINISTERIO ORDENATURAKO IDAZKARITZARI Gotzainagaz eta Gotzain Kontseiluagaz alkarlanean jardutea dagokio, eleizbarrutiko eta eleizbarrutitik kanpoko abade eta diakonoei laguntza pertsonala emoteko, batez be giza alderdian eta alderdi espiritualean. Bere ardura dira, gainera: abadeentzako erretiroak, gogo jardunak eta era askotako jarduerak antolatzea; abadeen egoitzak koordinatzea eta ikuskatzea; abade eta diakonoei euren buruari, familiari edo osasunari dagokienez dabean beharizanean aurre egitea eta abadeen eten bako heziketa. Azken hau garatzeko, Eleizbarrutiko heziketa zentroetara jo daike.

32. ARTIKULUA

LAIKOENTZAKO IDAZKARITZAK zuzendaria izango dau, honako egitekoakaz:

1. Laikoei dagokienez: laiko bokazinoaren garapenerako ezinbestekoak diran eremu eta bitartekoak, laikoak lekuko Eleizan txertatzea eta laikoek euren ardurakidetasuna bizitza publikoan, familian eta eleizan gauzatzea eragin.
2. Alkartutako laikoei dagokienez:
 - 2.1. Ekintza Katolikua, orokorra zein espezializatua, lekuko Eleizan dauan eginkizuna eta bere presentzia ebanjelizatzailea gizartean bultzatu, Gotzainagaz lotura berezia dauan laikoen alkarre lez.
 - 2.2. Fededunen alkarreen, mobimentuen eta komunitadeen proposamenei jaramon egin, eurak Eleizbarrutian txertatzeko bideak jarritz eta euren jarduera ebanjelizatzailea eta Eleizbarrutiaren jarduera orokorra koordinatu.
3. Pastoral mandatuak daben laikoei dagokienez:
 - 3.1. Akonpainamentu eta euren giza, pastoral eta espiritual beharrezanean egokitutako prestakuntza eskaini.
 - 3.2. Bikarioek suspertutako bereizketa prozesuetarako baldintzak eta honeen jarraipena bermatu.
 - 3.3. Pastoral zerbitzu egonkorreko bokazinoarako laikoen akonpainamentuaz, prestakuntzaz eta bereizketa prozesuez arduratu.

33. ARTIKULUA

KLAUSURAKO MONASTERIOETARAKO IDAZKARITZAK, Gotzainak beren-beregi agintzen deusazan egitekoak izango ditu. Gotzainaren izenean, Zuzendariak izango dau normalean hartu-emonan Eleizbarrutian dagozan monasterioakaz, horretarako ahalmen nahiko izango daualarik, eta gertatzen diran arazo edo gorabeherak konponduko ditu, Eleizbarrutiko Gotzainaren arau eta jarraibideak aintzat hartuta.

34. ARTIKULUA

§ 1. **KOMUNIKAZINORAKO ELEIZBARRUTIKO SAILA.** Eleizbarrutiko Kuriako erakunde honen bitartez komunikazinoa suspertzen eta koordinatzen da Eleizbarrutian, komunikazino sozial eta instituzionalaz arduratzen da eta presentzia dau *mass media* dalakoetan.

§ 2. Zerbitzu honen egitekoak dira:

1. Eleizaren mezuaren eta Eleizbarrutiko jarduera eta agirien presentzia leial eta duina ahalbideratu eta gehitu komunikabideetan.
2. Eleizbarrutiko irratien programazino erlijiosoaren plangintzan esku-hartu eta lagundu, hareen zuzendaritza eta erredakzino lanetan parte hartu, euren berariazko idearioa jagon daien.
3. Gotzainari eta eleizbarrutiko erakundeei aholku emon komunikabideetan agertzen diranean.
4. Kristau alkarte barruan komunikazinoa sendotu, alkartasuna, ardurakidetasuna eta eretxi publikoa suspertuz.
5. Eleizbarrutiko Aldizkari Nagusia argitaratu, Kantzelariaren ardurapean, eta, orokorrean, interesgarri izan daitekezan beste agerkari batzuk, eleizbarrutiko beste erakunde eta mobimentu batzuei aholku emoteaz gainera.
6. Gotzainari jakinaren gainean egon behar dauan Eleizako eta gizarteko gertaeren barri emon.
7. Eleizbarrutiko kuriari eta beste hainbat erakunderi, esate baterako, eleizbarrutiko batzorde, mobimentu apostoliko eta alkarteei, aholku emon komunikazinoaren arloan.
8. Alkarte barruko komunikazinoa suspertze aldera, informazinarako batzordeen sorrerarako argibideak emon parrokia, eskualde eta bikaritzetan.
9. Komunikazinoaren erabiltzaileen heziketa suspertu, aparteko arreta jarritz jarritz eragileengan, eta eleizako alkarte eta mobimentu apostolikoetan, gizarte eskoletan eta beste hainbat erakunde edo taldetan dagozan personengan.
10. Informazinoari zein baterako egitasmoei dagokionez, koordinatuta eta alkarlanean jardun Iruña, Bilbao, Donostia eta Gasteizko eleizbarrutien Eleizbarruti arteko Idazkaritzan, Gizarte Komunikabideetarako Gotzain Batzordeko Idazkaritzagaz eta, dagokionean, komunikazinarako beste erakunde eta bitarteko batzukaz.
11. Aldian behin, Komunikazinarako Eleizbarrutiko Egitasmoa eratu eleizbarrutiko pastoral lehentasunen ikuspuntutik eta kurso bakoitzeko jarduerak programatu.
12. Eleizbarrutiko zein eleizbarrutitik kanpoko era bateko eta besteko komunikabideak hartu-emon egonkorra izan arlo desbardinetan: prentsa, irratia, telebista, internet eta antzeko hedabideak.

13. Eleizbarrutiko Web orrialderako Sailari dagokiozan komunikazio-gaiak kudeatu eta Idazkaritza Nagusiagaz alkarlanean jardun aitaturako orrialdearen diseinu eta funtzionaltasunetan.

35. ARTIKULUA

§ 1. **HEZKUNTZARAKO ELEIZBARRUTIKO SAILA** Kuriako erakundea da eta Eleizbarruti osoan hezkuntza pastoraltza bideratzea, suspertzea eta koordinatzea da bere egitekoa.

§ 2. Honeek litzatekez bere erantzukizunak eta jardunlekuak:

1. Erlijinoko irakasleak.
2. Pastoral taldeak Eleizbarrutiko ikastetxeetan.
3. Hartu-emonak eskola katolikuagaz.
4. Hartu-emonak hezkuntza administrazioagaz eta hezkuntza arloko erakunde zibilakaz.

§ 3. Sail honetako Zuzendaria Fede-zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritzako kidea izango da eta alkarlanean jardungo dau 'Antonio Añoveros' Eleizbarrutiko Ikastetxeen Fundazio Kanoniko Autonomoko Zuzendari Nagusiagaz.

§ 4. Sail honek Bilbao, Donostia eta Gasteizko Eleizbarrutietako Hezkuntzarako eleizbarruti arteko Batzordeagaz, eta bat datozen gaietan lruñakoagaz, hartu-emonak izango dau eta beragaz alkarlanean jardungo dau. Era berean, lankidetzan arituko da Espainiako Gotzainen Batzarreko Irakaskuntzarako Batzordeagaz.

36. ARTIKULUA

§ 1. **KULTURA GAI ETA ONDASUNETARAKO ELEIZBARRUTIKO SAILAREN** eginkizuna, hizkuntzaren, literaturaren, arte ederren arloan eta beste hainbaten Eleizbarrutiak dauan presentziari lotutako gaien sustapena, koordinazioa eta estrategia-orientabidea da eta, horregaz batera, eleizbarrutiko historia-kultura ondarearen kudeaketa, alderdi anitzetan: artistikoa, monumentala, dokumentala, bibliografikoa eta immateriala.

§ 2. Bikarritza Nagusiaren bitartez, lankidetzan estuan jardungo dau pastoral Kuriako Ordezkaritzakaz, Kulturaren eremuetan Eleizbarrutiaren misino ebanjelizatzailea garatzeko.

§ 3. Hartu-emon egonkorak izango ditu lehen aitaturako arloetan jarduerak garatzen dabean eleizbarrutiko erakunde autonomoakaz, euren arteko koordinazioa ahalbideratuz, baina erakunde horreen gaineko hautazko ahalmen barik, euren estatutu eta gobernurako organuen bidez gobernatzen dira-eta.

§ 4. Kontu handiz zainduko ditu era bateko eta beste administrazio publikoakazko hartu-emonak, eurakaz alkarlan estuan eta ondo koordinatuta jarduteko, Vatikanoren eta Estatu espainiarraren arteko Kultura Gai buruzko Akordioan

jasotakoa eleizbarruti mailan ezartzeko eta garatzeko baliagarri diran akordio, hitzarmen eta mekanismoak gauzatzeko. Horretarako, hartu-emonak izango ditu eta kontsultak egingo, administrazio publikoen erabagi eta jardueren eragina izan daikien eleizbarrutiko erakundeakaz.

§ 5. § 1 atalean aitaturako arloetan jarduten daberen eremu zibileko kultura erakundeakaz hartu-emonen egotea eragingo dau.

§ 6. Eleizbarrutiko historia-kultura ondarea osatzen daberen kultura ondasunei dagokienez, dalako ondasun horreen domeka-titulartasuna erabat errespetatuz garatuko eta gauzatuko da euren eginkizuna. Eremu honetan, aholkularitza lanak egin behar ditu, osoko kudeaketari buruzko egitasmoen garapenerako, kultura ondarearen zaintze eta zabalkunderako zein parroketan edo eleizbarrutiko beste erakunde batzuetan burutu beharreko jarduera zehatzetarako.

§ 7. Zuzendaria izango da buru Sail honetan eta bere eginkizuna garatzeko, ikuskatu eta koordinatu egin behar dituan zerbitzu eta erakunde honeez baliatuko da:

1. Monumentu-ondarearen barriztapen eta mantentzerako Zerbitzua.
2. Eleiz Museoa.
3. Bizkaiko Eleizaren Histori Artxiboa eta, Kantzelaritzagaz lankidetzan, Artxiboen Eleizbarrutiko Zerbitzua.
4. Organu eta harmoniumen batzordea.
5. Eleizbarrutiko Liburutegia; ondare bibliografikoaren inguruko zerbitzua eskainiko dau eta, aldi berean, eleizbarrutiko beste erakunde batzuen liburutegiakaz koordinatuko da.

§ 8. Kultura Gai eta Ondasunetarako Sail honek batzorde aholku-emoilea izango dau, aurreko paragrafoan zehazturako zerbitzu eta erakundeetako eta artikuluen § 3 atalean aitaturako eleizbarrutiko erakunde autonomoetako arduradunek osatuta.

§ 9. 22, § 7 artikuluan jasotakoaren arabera eratuko dan Sail honen arautegiak, osatzen daberen zerbitzu eta erakundeen araudi eta arautegiak buztartuko ditu.

§ 10. Eleizbarrutiz gairdiko eremuan, hartu-emonak izango ditu Gotzainen Batzarreko Kultura Ondarerako Sailagaz eta Iruña, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Eleizbarruti arteko Idazkaritzan, edo dagokionean, beste eleizbarruti batzuetan, eratu daitezkan lan-talde edo batzordeetako kide izango da.

37. ARTIKULUA

§ 1. **ELEIZBARRUTIKO EUSKERA SAILA**, Eleizbarrutiko Kuriako erakundea da eta bertako sailen zerbitzura dago Kuriako pastoral lagungarri eta agirien itzulpenari eta prestaketari dagokionez. Zuzendaria izango da buru eta berau *Euskal Baliabideak* lan-taldeko kidea izango da.

§ 2. Euskeraren eta kulturaren arloko eleizbarrutiko erakundeakaz alkarlanean jardungo dau eta Iruña, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Eleizbarrutietako Eleizbarruti arteko Idazkaritzako antzeko erakundeakaz. Liturgia idazkien itzulpenerako, aitatutako eleizbarrutiakaz gainera, Baionakoagaz alkarlanean arituko da.

§ 3. Sail honek euskeraren arloko erakunde zibilakaz hartu-emonak izateko bideak landuko ditu.

3. KAPITULUA. ORDEZKARITZEN, IDAZKARITZEN ETA SAILEN BARRUKO ANTOLAKETA

38. ARTIKULUA

§ 1. Ordezkaritza, Idazkaritza eta Sail bakotzak bere Araudia eratuko dau; gero, Gotzainak onartuko dau, Gotzain Kontseiluaren eretxia entzunda.

§ 2. Dagokion Araudia prestatzeko, Kuriako bertako eta Kuriako beste erakunde batzuetako zerbitzu teknikoan laguntza teknikoa jasoko dau.

§ 3. Araudiak, ondorengo oinarritzko puntuak izango ditu, gitxienez:

1. Ordezkaritzaren, Idazkaritzaren edo Sailaren eginkizunak, berariazko helburuak, egiteko iraukorak, barne hartzen dituan arlo edo eremuak.

2. Antolakuntza, funtzionamentua, organigrama eta behar dituan langileak.

3. Hartu-emonak eleizbarrutiko beste erakunde batzukaz, esate baterako, bikaritza, pastoral barruti, parrokia, mobimentu, komunitate eta alkararteakaz.

39. ARTIKULUA

§ 1. Agindutako eginkizunaren arabera ezinbestekoak dituan persona eta erakundeak osatuko dabez Ordezkaritzak, Idazkaritzak eta Sailak, beti be Eleizbarrutiaren aukeren barruan, berak dituan giza bitarteko eta bitarteko materialei dagokienez.

§ 2. Ezinbestekoa da Ordezkaritzen, Idazkaritzen eta Sailen hartu-emon zuzena lurraldeetako eremuakaz.

40. ARTIKULUA

§ 1. Komunikazinarako Eleizbarrutiko Sailak eleizbarrutiko eremu guztietara helduko dan informazinarako tresna bateratu, bakar eta aldizkakoa eratu dau Ordezkaritza, Idazkaritza eta Sail guztietarako.

§ 2. Ordezkaritza, Idazkaritza eta Sail bakotxak, Eleizbarrutiko Kuriako zerbitzu teknikoakaz alkarlanean eta horretarako jarritako erispideei jarraituz, bere eremu propioa izango dau, txertatuta eta koordinatuta, Eleizbarrutiko Web orrialdean.

VI. IZENBURUA

KANTZELARITZA

41. ARTIKULUA

§ 1. Gotzainak, Eleizaren Zuzenbide orokorraren arabera, Kantzelaria izendatuko dau dekretuz Eleizbarrutiko Kuriako Kantzelaritzako buru lez eta honeek dira beren-beregi bere karguari dagokiozan eginkizunak:

1. Kuriako idatzizko ekintzak idatzi, igorri eta artxibatu, Kurian sortutakoak zein Kuriara heldutakoak.
2. Kuriako Idazkari eta Notario Nagusi izan, eragin juridikoak izango dabezan ekintza guztietan sinadurak berretsiz. Ekintza horreen barri emongo deutse Bikario Nagusiari eta Kuriako Moderatzaileari.
3. Artxiboei eta erregistroei buruzko Eleizaren legeria betetea jagon eta, bereziki, Kuriako Artxibo orokorreko giltza zaindu, bertarako sarrera baimendu eta, Gotzainagaz edo Kuriako Moderatzaile edo Kuriako sail honen ardura lehentasunez esleitu jakon Bikario Nagusiagaz batera, bertatik agiriak ataratea baimendu (ik. 486-491 kk.).
4. Eskari-eragile izan Vatikanoren aurrean.

§ 2. Gotzainak beharrezkotzat joten badau, Kantzelariordea izendatuko dau Kantzelaria ordeztu daian eta lagundu deion harek bere esku itzitako auzi guztietan, ohiko kasuetan ala ohiz kanpokoetan (ik. 482 § 22 eta 3 k.).

§ 3. Kantzelariaz eta Kantzelariordeaz gainera, beste Notario batzuk be egon daitezke eta euren idatzizko ekintza edo sinadurak edozein eratako ekintzei dagokienez fede

emongo dau, edo bakarrik auzi judizialetarako edo bakarrik auzi edo gai jakin bati lotutako ekintzetarako.

42. ARTIKULUA

Kantzelariaren ardurapean dagoan Ezkontzetarako Notaritza ondorengo honeez arduratzen da:

1. Gotzainak edo Bikario Nagusiak emon behar dituan dispentsa, lizentzia, baliozkotze eta baimenak bideratu.
2. Beste Eleizbarruti batzukaz esku-hartuz egin behar diran ezkontza-agiriak bideratu.
3. Parrokiei aholkularitza eta laguntza emon ezkontza-agiriak zein gainerako sakramentu-agiriak egiterakoan.

43. ARTIKULUA

Kantzelariaren edo, dagokionean, Kantzelariordearen menpe egongo dira zuzenean, ondorengo zerbitzuok:

1. Kuriako erakundeen batzar-agirien artxiboa, artxibatutako agiriei dagokien aurkibideagaz.
2. Agirien artxiboa.
3. Eleizbarruti osoan artxibo eta erregistroei buruzko Eleizaren legeria betetea jagon.
4. Artxiboen Eleizbarrutiko Zerbitzua.
5. Hartu-emona Histori Artxiboagaz. Erispideak ezarriko dira mantentze iraunkorrerako agiriak zeintzuk diran zehazteko eta mantentze-egutegiak eratuko dira, artxibatze-erispide egokien arabera. Agiriak kontsultatzeko eta jadesteko, kontuan izango dira Eleizaren Artxiboen Araudiko arau eta orientabideak eta hareetan eragina izan daiken legeria zibila. Datu pertsonalak dabezan agirien kasuan, dagokionaren baimenagaz baino ezingo dira kontsultatu. Hirurogeta hamabost urtetik behera dabezan gainerako agiriei dagokienez, eskuragarritasun-azterketak egingo dira, kasu batzuetan beren-beregi Gotzainaren baimena ezinbestekoa dalarik.
6. Erregistro orokorra, Kuriako erakundeei edo, euren karguaren arabera, personei zuzendutako agiri, jakinarazpen, ofizio, gutun, e.a.,... guztien bidezko idazpenerako.

7. Eskatzen daben persona edo erakundeei Kuriako erakunde, jarduera edo personei buruzko bidezko datu eta orientabideak emon.
8. Eleizbarrutiko Aldizkari Nagusiaren zuzendaritza.

VII. IZENBURUA

IDAZKARITZA NAGUSIA

44. ARTIKULUA

Idazkari Nagusiak, ahalmen betearazle barik, ondorengo eginkizunak izango ditu:

1. Eleizbarrutiko Kuriaren eta bertan txertatutako eleizbarrutiko beste hainbat erakunderen eraikinen mantenu, erabilera, banaketa, hornikuntza eta espazioen kudeaketa.
2. Kuriako posta eta beste edozein agiriri lotutako kudeaketa, bideratze eta harrera zerbitzuak.
3. Orokorrean Kuriako eta Kurian txertatutako erakundeetako informazio eta komunikazioaren teknologien inguruko zerbitzuak: informatika, sistemak, sareak, telefonia, intranet, web orrialdea, ikus-entzunezko eta kopiagintza ekipoak, eta, orokorrean, Kuriaren jarduera integratuagorako eta egitekoak hobeto beteteko ezinbestekoa dan ekipamendu teknologikoagaz zerikusia dauan guztia.
4. Idazkaritza-euskarri zerbitzuak testuen ediziorako eta, eleizbarrutiko liburu-dendagaz lankidetzan, Eleizbarrutiko argitalpenen sustapen eta ikuskapen zerbitzuak.
5. Kuriako kide eta erakundeek eleiz zein herri agintari eta erakundeakaz, erakunde zibil, akademiko, juridiko edo antzerakoakaz izan behar dabean protokolozko, lankidetzazko, hitzarmenezko, ordezkapenezko eta erlaziozko jarduerak prestatu eta gainbegiratu.
6. Eleizbarrutiko Gerenteari aholku emon Kuriako kide guztien lan-kontratuen inguruan egokitasunez jokatu daian eta ikuskapena egin lan-akordioak egoki bete daitezana.
7. Lege-aholkularitza zerbitzua koordinatu eta ikuskatu, Eleizbarrutiak beharko eukezan berezitasunetan.

8. Laguntza teknikoa Bikario Nagusi Kuriako Moderatzaileari dagokiozan egitekoetan, batez be, Kuriaren antolakuntzari lotutakoak.

VIII. IZENBURUA

ELEIZBARRUTIKO ADMINISTRAZINOA

1. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

45. ARTIKULUA

§ 1. Eleizbarrutiko ondasun guztien ekonomia-finantza kudeaketa dagokio Eleizbarrutiko Administrazioari.

§ 2. Ekonomia Gaietarako Eleizbarrutiko Batzordeari, Eleizbarrutiko Ekonomo edo Gerenteari eta kudeaketa eta kontsultarako erakundeei emon jake honen ardura. Aitatutako horreek, Eleizaren Zuzenbide orokorraren eta Estatutu honetan jasotakoaren arabera hartuko dabe euren gain dalako ardura hori, Gotzainaren agintepean, hau berak gauzatu daikelarik ala beste norbaitek (ik. 492-494 kk.).

46. ARTIKULUA

§ 1. Aldizkakotasun egokiaz, Gotzainak, Ekonomia Gaietarako Batzordeak proposatuta, dekretuz ezarriko ditu Eleizbarrutiko ondasunen administrazioa gauzatzeko erispide orokorrak.

§ 2. Eleizbarrutiko finantza-informazioa irabazi asmo bako Erakundeen Kontabilidade-egitasmoan ezarritako araudiaren arabera aurkeztuko da.

2. KAPITULUA. EKONOMIA GAIETARAKO BATZORDEA

47. ARTIKULUA

§ 1. Ekonomia Gaietarako Batzordea Eleizbarrutiko Administrazioarako erakunde nagusia da. Kolegiala da, egonkor eta ezinbestekoa eta Gotzainari aholku emoten eta lagundu egiten deutso Eleizbarrutiko ondasunen administrazio zuzenean eta bere zainketa eta eskumenaren pean dagoan ondarearen jagoletzan.

§ 2. Ekonomia Gaietarako Batzordea da Eleizbarrutiko finantza-egoeren onarpenaren arduraduna (493 kanona).

§ 3. Eleizbarrutiko Gotzaina edo berak delegatutako norbait buru dala, ekonomia arloan eta Zuzenbide Zibilean benetan adituak diran eta egiaztatutako zintzotasuna daben pertonez osatuta egongo da.

§ 4. Zuzenbide Kanonikoan eta bere berariazko Estatutuan jasotakoaren arabera gobernatuko da.

3. KAPITULUA. ELEIZBARRUTIKO EKONOMO EDO GERENTEA

48. ARTIKULUA

§ 1. Gotzainaren agintepean, Eleizbarrutiaren ondasun guztiak administratzea da Eleizbarrutiko Ekonomo edo Gerentearen berariazko egitekoa (ik. 423 § 2; 494; eta 1278 kk.). Horretarako, Eleizaren ondasunen jaube dan persona juridikoaren helburuak beteteari begira bideratuko ditu jarduerak (ik. 1281 k. eta hurrengoak). Gotzaina buru dauan Ekonomia Gaietarako Eleizbarrutiko Batzordeak zehaztutako Eleizbarrutirako politika ekonomikoaren betetzaileria, kudeatzailea eta gauzatzailea da. Era berean, Eleizbarrutiaren finantza-egoeren egiteaz arduratzen da (494 § 4 k.) eta horreek Ekonomia Gaietarako Batzordeari aurkezteaz, onartu daizan (493 kanona).

§ 2. Gotzainak izendatuko dau Eleizbarrutiko Ekonomo edo Gerentea, aurretik Kontsultoreen Kolegioari eta Ekonomia Gaietarako Batzordeari entzunda. Ezinbesteko zintzotasuna izateaz gainera, ofizio honetarako aukeratu daiten persona ondorengo arloetan gaitasuna izateagaitik nabarmenduko da: gai ekonomiko eta administratiboetan, mundu honetako ondasunei buruzko legeria kanoniko eta zibilaren ezagutzan. Gainera, benetako eleiz sena izango dau eta, horren bitartez, Eleizak ondasun materialen erabileran lortu gura dauan helburua argitasunez islatuko dau. Hierarkiari dagokionez, Bikario Nagusi Kuriako Moderatzailearen edo Kuriako sail hau lehentasunez esleitzen jakon Bikario Nagusiaren eskumenari atxikita dago.

§ 3. Bost urterako izendatuko da eta izendapen hori muga barik barritu daiteke bost urteko epeetarako. Izendatua izan dan epe horretan ez da kargutik kenduko, Kontsultoreen Kolegioari eta Ekonomia Gaietarako Batzordeari entzun ondoren Gotzainak aztertu behar dauan arrazoi larriren batengaitik izan ezik (ik. 494 § 2 k.).

49. ARTIKULUA

§ 1. Eleizbarrutiko Ekonomo edo Gerentearen eskumenak dira, Eleizaren Zuzenbide orokorraren arabera:

1. "Eleizbarrutia" persona juridikoaren ondasunak administratu, Gotzainaren agintepean eta Ekonomia Gaietarako Batzordeak zehaztutakoaren arabera (ik. 494 § 3 k.).
2. Gotzainak edo beronek ardura emondakoek zilegitasunez agindutako gastuak egin Eleizbarrutiaren berariazko sarrerakaz; beti be, Eleizbarrutiaren gastuetan zuzentarau-batasuna bermatuz.
3. Urtero sarreren eta gastuen kontuak –adiera zabalean: emaitzen kontua, balantzea, ondarea...- emon Ekonomia Gaietarako Batzordeari (ik. 494 § 4 k.).
4. Alkar Kutzaren administrazioa, bere estatutuen arabera.
5. Gotzainaren aginduz, berari atxikitako persona juridikoen ondasun guztien administrazioa arduraz jagon. Eleizbarrutiko Gotzainaren mende dagozan persona juridiko publikoak bisitatzeko, ikuskatzeko eta aldizka euren Ordinarioari aurkeztu beharreko kontu-emotea eskatzeko eskumena izango dau (ik. 1278; 1276 kk.).
6. Eleizbarrutiko Gotzainak bere menpe dagoan Eleizaren edozein erakunderen administrazioan esku-hartzea agindu deikeo, administratzaileen axolagabekeria gertatu ezkeru, eta dalako persona juridiko horreen ondasunen administraziorako persona egokiak bilatzeko ardura emon deikeo (ik. 1279 k.).
7. Kuriako kide guztien lan-kontratuak prestatu eta ikuskatu, Bikario Nagusi Kuriako Moderatzailearen edo kontratua dagokion Kuriako saila lehentasunez esleitu jakon Bikario Nagusiaren oharrak kontuan hartuta, Idazkari Nagusiaren aholkuagaz.

50. ARTIKULUA

615. kapitulan aitutzen diran Eleizbarrutiko Zuzenbideko Institutuen edo monasterio autonomoen mundu honetako ondasunen administrazioan Gotzainaren lizentzia edo onespina eskatzen dan hipotesi guztietan eskatutako espedientea bideratuko dau, Klausurako monasterioetarako Idazkaritzako Zuzendariaren eretxia entzunda.

51. ARTIKULUA

§ 1. Eleizaren Zuzenbide orokorraren eta Estatutu honen arabera, beren-beregi dagokiozan egitekoak beteteko, bere zuzendaritzapean dagoan eta ondorengo eremuek osatuko daben Sailaren laguntza izango dau:

1. Administrazioa: kontabilitatea, dirusaintza, kobratze eta ordaintzeak, nomina eta gizarte segurantzen kudeaketa, aurrekontuaren prestaketa, kudeaketa eta kontrola, kontratuen jarraipena, testamentuen gauzatzea eta Mezen bilketa.

2. Alkar Kutxa. 1973an parrokien arteko alkartasuna eta abadeen eta eragileen ordainsari egokia ziurtatzeko kanonikoki erataka, gobernatzeko dauan Araudiaren arabera, Gotzainen Batzarretik jasotako diru-kopurua, parrokien ekarpenak eta ekarpen pertsonalak, eta Abadeen Arretarako Fondotik etorri daitezkean fondoak administratzeko ardura dau. Alkar Kutxaren kargu izten da abadeei, diakonoei eta gainerako pastoral eragileei ordaintzea eta berari dagokio parrokiei egin behar dabezan obretarako emon behar jakezan laguntzen inguruan erabagitzea. Bere kudeatzailea arduratzen da Alkar Kutxaren funtzionamentuaz eta Bikaritza bakotzeko ordezkari batez osatutako Batzorde Iraunkor bati dagokio erabagiak hartzea.
3. Eraikinak: Gotzaitegiaren, parrokien eta gainerako erakunde kanonikoen eraikinen zainketarako, erabilera egokirako eta, dagokionean, errendimentu ekonomiko egokirako ezinbesteko zerbitzuak sustatzea eta garatzea da bere betebeharrak nagusia. Egitekoen artean, besteak beste, honeek nabarmentzen dira: inbentarioa, defentsa juridikoa, lege- eta kudeaketa-aholkularitza eta obretarako zerbitzu teknikoak.
4. Langileak. Eleizbarrutiko Ekonomo edo Gerenteak zuzenean bere gain hartzen ditu Kuriako soldatapeko langile guztien –pastoral mandatua daben laikoena izan ezik- zuzendaritzari eta ordaintzeari dagokietan egiteko guztiak: hartu-emonak, hitzarmenak, lan-kontratuak eta euron kudeaketa. Langileak kontratatzerakoan, kontuan izango ditu Bikario Nagusi Kuriako Moderatzailearen aholkuak eta Idazkari Nagusiaren aholkularitza be izango dau. Pastoral mandatua daben soldatapeko laikoei dagokienez -zuzendaritza eta kudeaketa Bikaritza Nagusiari dagokio-, aholkularitza eta laguntza teknikoak eskainiko deutse.
5. Eleizbarrutiko Ekonomia Plana: Autofinantzaketa, alkartasuna, eraginkortasuna eta gardentasuna lako oinarrien haritik, Eleizbarrutiaren finantzaketa egokirako komenigarriak diran mekanismoak eta jarduerak suspertzea eta garatzea da bere egiteko nagusia. Horretarako, lurraldeekin koordinazioan eta alkarlanean aritzeko mekanismoak ezarriko ditu, eleizbarrutiko ekonomia planak zehaztu eta garatzeko. Eleizbarrutiko Ekonomia Planeko Idazkaritza Teknikoa arduratzen da ha egiteaz eta haren jarraipenaz, batez be emondako zerbitzuen eta Egitasmoaren betetearen ebaluazioa eginez, kasuan kasu beharrezkotzat jotzen diran neurri zuzentzaileak proposatuz.

§ 2. Lege-aholkularitzaren laguntza izango dau bere egitekoak beteteko.

52. ARTIKULUA

Gotzainak, aldizka, kanpotik kontu-ikuskaritzak egitea agindu leike, horretarako arlo honetan fidagarriak diran enpresetara joz; horreek Ekonomia Gaietarako Eleizbarrutiko Batzordeari aurkeztuko jakoz. Dana dala, aulkia hutsik denean egin beharko da, horren amaieran egokitasunez eta kanpotik ikuskatutako Eleizbarrutiaren ekonomia eta ondare txostena egon daiten.

IX. IZENBURUA

ELEIZ AUZITEGIA

53. ARTIKULUA

§ 1. Eleizbarrutiko Kuria Judizialak, Justiziarako Kuriak edo Eleiz Auzitegiak, Eleizbarrutian justiziarako dagoan erakunde lez, laguntza emoten deutso Eleizbarrutiko Gotzainari epai-agintearen garapenean, eta lehen instantziako Auzitegi arrunta da Eleizbarrutian eleizaren foruari dagokiozan eta beste auzitegi baterako bereizita ez dagozan auzietarako.

§ 2. Zuzenbideak holan zehazten dauanean, ahalmen administratiboaren garapenean be laguntzen deutso Gotzainari; era berean, Gotzainak Auzitegiaren edo bertako kideen esku itzi daikez bere izatasunagaz bat datoza beste egiteko batzuk edo laguntza teknikoa eskatu deikie.

§ 3. Auzi Bikarioak eta Eleizbarrutiko gainerako Epailleek Auzitegi bera osatzen dabe Gotzainagaz eta, ondorioz ez dago honi haren epaien aurkako apelaziorik aurkezterik.

54. ARTIKULUA

Eleizbarrutiko Eleiz Auzitegiaren eskumenak dira:

1. Legez beste auzitegi baterako bereizita ez dagozan kausa judizialak, auzi zein penalak; batez be ezkontzen deuseztasunerako kausak.

2. Ezkontza-prozesu administratiboen bideratzea, Zuzenbidean ezarritakoaren arabera, batez be:

— Ezkontzaren deuseztatzerako, apurtutakoa eta burutu bakoa zein fedearen alde edozein formatan.

— Ezkontidearen ustezko heriotzaren adierazpenerako.

3. Esku-hartzea, eretxia emonez beharrezkoa danean, Ordinarioaren aldetik ezkontza kanoniko barrirako betoa kentzeko prozesuan.

55. ARTIKULUA

§ 1. Auzitegiko Moderatzailea dan Eleizbarrutiko Gotzainari dagokio batez be:

1. Bere ahalmen betearazle edo administratiboaren arabera, Auzitegirako izendapenak egin eta bere funtzionamentu ona jagon eta kideen prestakuntza egokia zaindu.
2. Bere ahalmen legegilearen arabera, Auzitegiaren araudia eta bere aldaketak onartu.
3. Bere ahalmen judizialaren arabera, Zuzenbidez beren-beregi ez salbuetsitako auziak epaitu lehen instantzian. Berak zehazten ditu ezkontzaren deuseztapenerako arrazoiak prozedura laburrez, beste arrazoi batzuk gordeteko aukera izanda. Gainerako kasuetan eleizbarrutiko Epailen bidez gauzatzen dau ahalmen hau.

§ 2. Auzi Bikarioa:

1. Epaille lez esku-hartzen dauan auzietan justizia administratzeaz gainera, normalean Auzitegian buru da Gotzainaren izenean, justiziaren administrazioa Zuzenbidearen arabera gauzatzea jagonez.
2. Ahalmen arrunt bikario judiziala dagokio eta Eleizbarrutiko Gotzainak delegatutako ahalmen administratiboa be badau aparteko eskuordetzerik behar ez daben eta Auzitegiari dagokiozan ekintza guztietarako. Bereziki, Auzitegiaren Zuzenbidearen araberrako jarduerari buruzko arauak emon daikez Estatutu honetan edo Auzitegiaren Araudian araututa ez dagozan alderdietan, Gotzainari, berari dagokiozan aldaketa normatiboak proposatu behar deutzazalarik.
3. Zuzenbideagaz bat, Auzitegiaren araudiak ezarritakoaren arabera, epailen eta auzi bakotxean esku-hartuko daben gainerako personen izendapenaren, epai-tasen salbuespen eta murriztapenen eta ofizioko abokatuen izendapenaren inguruan ebatziko dau.
4. Auzitegiaren egoera eta jardueraren barri eongo deutso Eleizbarrutiko Gotzainari, gairik nabarmeneen inguruan jakinaren gainean jarriko dau eta jarduera hobeagorako ezinbestekoa dana proposatuko deutso.

5. Auzitegiko gainerako kideei kontsulta egingo deutse erabagirik garrantzitsuenen inguruan.

§ 3. Alboko Auzi Bikarioa:

1. Epai Bikarioari laguntzeko komenigarritzat joten bada izendatuko da.
2. Epai Bikarioaren zuzendaritzapean ahalmen ordinario bikarioa garatzen dau, Eleizbarrutiko Epaille lez dagokion epaitzeko ahalmenaren kalte barik.
3. Ezinduta edo kanpoan dan Epai Bikarioaren lekua hartzen dau gai arruntetan. Alboko Auzi Bikariorik ezean, Epai Bikarioak delegatu izan dauan eleizbarrutiko Epailleak ordezkatzeko dau edo, holakorik ezean, izendapen-datagaitik zaharrenak.

56. ARTIKULUA

§ 1. Eleizbarrutiko Gotzainak Auzitegiko kide honeen izendapenak egingo ditu, Zuzenbidezko beharrian eta aginduen arabera:

1. Auzietarako txandaka izendatzeko Zuzenbidez eskatutako baldintzak dabean eleizbarrutiko Epaille nahiko.
2. Justizia sustatzaile edo Fiskala auzi penaletarako, eta tartean dan auzietan on publikoaren alde egiteko.
3. Loturaren Defendatzailea, ezkontzaren deuseztasun edo desegiteen auzietan eta ordena sagaratuen deuseztasunen auzietan esku-hartzeko.
4. Auzi-entzulea, epaille presidenteak izendatu ahal izango dauana auziak bideratzeko.
5. Aholkulariak, Auzi Bikarioak Epaille bakarrak zehazteko auzietarako, prozedura laburrez Gotzainaren aurrean bideratutakoak barru, izendatu daikezanak, bideratzailea bera aholkularietako bat izan daitekalarik. Dana dala, Gotzainaren kontrako oharpenetan izan ezik, aholkulari izendatu ahal izango dira paragrafo honetako lehenengo lau izendapenetako bat edo 57 § 1 artikulukoa jaso dabeanak, beti be, alde pribatu edo publikoaren aldeko auzi berean esku-hartzen ez badabe, ezta 57 § 3 artikuluri dagokionean be.

6. Notarioa, aktak idazteko eta Auzitegiaren aurrean egindakoaren fede publikoa emoteko misinoagaz.

§ 2. Auzi Bikarioak:

1. Arrazoi zuzenez *ad casum* jardun ahal izango dau Eleizbarrutiko Gotzainak ofizioetarako izendatutakoen artean ez dagozan aukerako personak izendatuz, artikuluko honen § 1 atalean aitaturako 4., 5. eta 6. Ofizioetarako, Zuzenbidean ezarritako bateraezintasunak tinko geratuz.
2. Prozedura laburrez Gotzainaren aurrean ezkontzen deuseztasunak ebazteko, Zuzenbidearen arabera aukerako personak izendatuko ditu Bideratzaile eta Aholkulari lez, batez be Auzitegiaren eta Gotzainaren beraren laguntzaileen eta konfiantzazko personen artean

57. ARTIKULUA

§ 1. Auzitegiak, Gotzainak izendatutako Patrono egonkor bat edo batzuk edo Abokatu egonkorak izango ditu; Auzitegiak euren esku izten dituanen eta euren nahierara izendatzen dabean Abokatu eta Prokuradore lez jardungo dabe.

§ 2. Aldeek euren nahierara izendatu ahal izango dabe euren konfiantzazko beste Abokatu bat, Eleizbarrutiko Gotzainak onartuta ala Rotako Abokatu-titulua dauana. Aitaturako onespenerik edo titulazinerik ez dauan Abokatu izendatzeko, Epai Bikarioaren *ad casum* onarpena lortu beharko dau, Zuzenbidean eskaturako baldintzak beteta.

§ 3. Auzitegiak doako zerbitzua eskainiko dau fededunei Auzitegian auzia sartzeko aukeraren eta jardunbidearen inguruan informazioa eta aholkua emoteko, batez be ezkontzaren deuseztapenerako auzietan. Normalean, Patrono edo Abokatu egonkorak eskainiko dau aholkularitza-zerbitzu hau.

58. ARTIKULUA

Auzitegiak, Eleizbarrutiko Gotzaitagiko ezkontzetarako notaritzagaz eta beharrezkoa danean Histori Artxiboagaz hartu-emonean jarduteaz gainera, harremana izango dau Eleizbarrutiko gainerako erakundeakaz, batez be Fede-zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritzagaz eta Familia Biderapenerako Lagungo Fundazioagaz, besteak beste, ondorengoak suspertzeko helburuagaz:

- Epe luzera, ertainera eta laburrera ezkontza prestatzeko heziketa prozesuak.
- Akonpainamentua senar-emazte gazteei, gatazkak saihesteko.
- Adiskidetzeko familia pastoraltza, ezkontza-apurketak saihesteko.
- Pastoral arreta, apurketen eraginez sufritzen dabenei.
- Auzitegiaren eta bere eginkizunaren ezagutza era bateko eta besteko eleiz eta gizarte eremuetan.
- Gainerako erakundeek Auzitegiari eskaini deikeoen laguntza teknikoa.

X. IZENBURUA

KURIAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

1. KAPITULUA. ELEIZBARRUTIKO KURIAKO AHOALKULARITZA JURIDIKOA

59. ARTIKULUA

§ 1. Aholkularitza juridikoa legaltasunaren kontrolerako barruko eta borondatezko tresna da Gotzainaren zerbitzura Eleizbarrutiaren administrazioan eta horregaitik kokatzen da Eleizbarrutiko Kurian. Bidezko aholku teknikoa emoten deutse Eleizbarrutiko administrazio arduradunei arlo juridikoan.

§ 2. Aholkularitza juridikoaren egitekoa, teknikoa da batez be, auzi egitekoa (besteren interesen defentsa auzitegien aurrean) arauz kanpo itzi barik.

§ 3. Bere egitekoa, prebentiboa da, aurre hartzea da helburua eta, ahal dan neurrian, gatazkak saihestea edo, gertatu ezker, eleizbarrutiaren bidezko interesak desabantailan ez egotea.

§ 4. Eleizbarrutiaren gobernu arduradunen erabagiei eraketa juridiko egokia emoten saiatuz eta aitaturako arduradunen zuzenketa juridikoa ziurtatuz beteten dau bere aholkulari-egitekoa.

60. ARTIKULUA

§ 1. Eleizbarrutiko Aholkularitza Juridikoa maila bitan ezartzen da: bata, Eleizbarrutiko Kuriako eguneroko jardunari estuago lotutakoa, Eleizbarrutiko Administrazioaren ekintzak ikuspuntu juridikotik aztertzeaz arduratzen da; eta bestea, noizean behingo laguntzaileena, eurongana adituak diran gai jakin batzuetarako (Higiezin- eta Erregistro-zuzenbidea, Hirigintza-zuzenbidea, Zerga-zuzenbidea...) jotzen dalarik.

§ 2. Aholkularitza Juridikoa Idazkari Nagusiari atxikita dago zuzenean; honek koordinatuko dau bere egitekoa, batez be Eleizbarrutiko Bikaritza Nagusiaren, Kantzelaritzaren eta Gerentziaren zerbitzurako danean.

2. KAPITULUA. ARTXIBOEN ELEIZBARRUTIKO ZERBITZUA

61. ARTIKULUA

§ 1. Zerbitzu tekniko lez ezartzen da, eta CICko 486-488 eta 491 kapituluetan Eleizbarrutiko eta bere erakunde eta parroketako batzar-agiriak eta gainerako agiriak gordetea helburutzat daben artxiboei buruz jasoten dana ziurtatzeko bitarteko arauemoile eta teknikoak emotea da bere eginkizuna.

§ 2. Hona hemen Zerbitzu honen egiteko nagusiak:

1. Eleizbarrutiko artxiboak, Eleizaren Histori Artxiboa barru, koordinatu eta ikuskatu, Eleizbarrutiko erakundeei berariazko artxiboaren sorrera eta kudeaketarako laguntasuna emon.

2. Eleizbarrutiko Artxiboa kudeatu eta Eleizbarrutiko erakundeek, gorde, sailkatu, katalogatu eta, dagokionean, digitalizatu eta zabaldu ahal izateko, bertara eroan gura dabezan fondo dokumentalak jaso eta integratu.

3. Agirien kudeaketarako ezinbesteko araudia prestatu, dagokion aginteak onartu daian, eta eleizbarrutiko erakundeei aholku emon eta lagundu, dalako araudi hori ezartzen eta garatzen.

4. Bitarteko teknologikoak Eleizbarrutiko artxibo-kudeaketara ezartzea eragin.

5. Eleizbarrutiko erakunde erabagitzaillei agiri-kudeaketan eragina izan daiken guztiaren inguruan barri eta aholku emon, batez be legeria kanoniko eta zibilaren arloan.

6. Eleiz eta herri mailako erakunde kideaaz hartu-emona izan, alkarri informazioa emoteko eta, dagokionean, alkarlanean jarduteko.

§ 3. Zerbitzu honek Arduraduna izango dau, ezinbesteko autonomia izango dau bere ardurapean itzitako misinoa eta egitekoak beteteko, organikoki Kuriako

Kantzelaritzan txertatuko da eta hartu-emon estua izango dau Kultura Gai eta Ondasunetarako Eleizbarrutiko Sailagaz.

3. KAPITULUA. GOTZAINAREN IDAZKARITZA PERTSONALA

62. ARTIKULUA

§ 1. Gotzainaren Idazkaritza Pertsonala Eleizbarrutiko Gotzainaren menpe dago zuzenean eta bakar-bakarrik. Gotzainaren ohiko jarduerari –agenda, audientziak, joan-etorriak, protokoloa, Gotzaina buru dala egiten diran jarduera eta ospakizunak, agiriak, posta-trukea eta artxiboa- dagokion barruko ordenaz arduratzen diran pertonek osatzen dabe.

§ 2. Idazkaritza honetan, Idazkaria izango da buru eta berari esleitutako jardueren eta, dagokionean, ha osatzen daberen beharginen zuzendaritza eta koordinazioaz arduratuko da

XI. IZENBURUA

KURIAKO ERAKUNDEEN

ATXIKITZE FUNTZIONALA

63. ARTIKULUA

Estatutu honen 8. artikuluko § 2 atalean aurreikusitakoaren arabera, Kuriako erakundeak honan atxikiko dira:

1. Kuria Pastoralari:

a) Eleizbarrutiko Ordezkaritzak

- Liturgia.
- Fede-zabalkunde eta Katekesia.
- Karidade eta Zuzentasuna.
- Misinoak.
- Ekumenismoa eta Erlejinoen arteko hartu-emon.

b) Eleizbarrutiko Idazkaritzak:

- Ministerio ordenatua.
- Laikotza.
- Klausurako monasterioak.

c) Eleizbarrutiko Sailak:

- Komunikazinoa.
- Hezkuntza.
- Euskera.

2. Kuria Administratiboari:

- Kantzelaritza.
- Idazkaritza Nagusia.
- Eleizbarrutiko Administrazinoa.
 - Ekonomia Gaietarako Batzordea.
 - Eleizbarrutiko Ekonomo edo Gerentea.
- Kultura Gai eta Ondasunetarako Eleizbarrutiko Saila.
- Artxiboen Eleizbarrutiko Zerbitzua.
- Aholkularitza Juridikoa.

3. Justiziarako Kuria

- Eleiz Auzitegia.

XII. IZENBURUA AZKEN XEDAPENAK

64. ARTIKULUA

Indargabetuta geratzen dira Estatutu honetan jasotakoaren kontrakoa esaten daben eleizbarrutiko aurreko xedapen guztiak.

65. ARTIKULUA

Bilboko Eleizbarrutiko Kuriaren Estatutu hau 2017.eko irailaren 1ean sartuko da indarrean.

Bilbao, bi mila eta hamazazpigarreneko uztailaren hogeta hamaika

Ikusita eta Onartuta

✘ **Mario Izeta Gabikagoxeaskoa**
Bilboko Gotzaina

Fede emoten dot

Felix M^a Alonso Alonso
Kantzelaria